

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

615. zkia.

XV. urtea

2007ko maiatzaren 25a

Maria Elena Ledesma, Juanito Azkueren alarguna

**«Senideak ezagutzera
etorri naiz Argentinatik»**



AMAIA GORROTXATEGI



AINHOA MENDIBIL

ZOZOAK BELEARI...

Aupa bele,
Euskal herrira etorri omen da berriz ere beroa. Eta txoriak. Lehen joan zirenak zozoak eta beleak badatoz bueltan. Orain 8 hilabete inguru laga zuen zozoak kabiak. Euskal Herrian mendiak zuritzen eta sudurrak gorritzen hasi ziren garaian.

Egindako pronostiko gehienak bete dira, zozoak kabi berria egin zuen kabi zaharra ahaztu gabe eta Euskal Herria existitzen dela ere ez dakiten txoritxo mordoa ezagutu ditu eta bai, momentu batzuetan berriz ere itsasoa zeharkatu behar duela ahaztu zaió. Baina ez, ez dago triste etxera bueltatu behar delako.

Mundu guztia ikusiko nuke, berdin zait Saharan gameluan ibili edota Habanan Compay Segundoren doinuak "roncito" pixkat edan. Baina ez dut uste inoiz Euskal Herria etortzeko penatan egongo naizenik. Lehengo egunean katalan batek oso ausarta nintzela esan zidan, jende guztiari, espainolei bame, ni euskaldun sentitzen naizela esaten diedalako. "Se ve que estas muy orgullosa de tu país" "no es orgullo, es amor" erantzun nion nik, parre txikia eginez. Kontatu nion, behin moja bati entzun niona: Jainkoaren deia zer den ezin da azaldu, maitemintzea bezela zela. Ezin da azaldu zer sentitzen duzun, eta zergatik baina badakizu maiteminduta zaudela. Nik nere herriagatik sentitzen dudana berdin da. Nik maitasuna bezala definitu nuen. Zuk nola definitzen duzu?

«Nire herriagatik
sentitzen
dudana
maitasuna da»

AMAIA

«Herria.
Hori
besterik ez,
eta hori dena»

AINHOA

Ai, ai, ai... zozo... bazatoz orduan eeh... eta maiteminduta itxuraz. Aspaldiko maitalea ikustear bezeunde bezala sentituko zara orduan. Tximeletak tripa aldean?

Eta nik nola definituko nukeen galdeztzen didazu. Eta pena ematen dit galderak Amaia. Definitu beharra. Une oro zer den gureztat, zer nahi dugun gureztat, zer ez dugun lagatzen, zerk mugatzen gaituen, zenbat den, zenbat ematen duen, eta zenbat kendu... hori da maitasuna azken finean ezta? Lagun bati sari esan izan diot, ez zaidala gustatzen definiziotan jaustea. Edozein harreman, maitasun, hori baino gehiago dela. Ez dela hiztegi bat, ez garelara, edo be. Egunero definizioz aldatzen jardun beharko genuke bestela. Ez al duzu uste? Merez al du horrela aritzeak?

Niretzat asko eta ezerrez. Hori da guztia. Horrela gertatzen zait guztiarekin.

Niretzat herria da, etxea ere bada. Niretzat berdea da, eta gorria askotan. Batzuetan grisa edo beltza. Zuria, zuritu antzean dabilzantentzat. Eta indartsua da. Eta ahula dirudi sarri. Eta alaia, barre egiten duenean, eta tristea negar egitea tokatzen zaionean. Sortzen ari den herria da, baina zaharra, oso zaharra. Eta bai, sortzen dit maitemina, sortzen dit irribarra, noraeza, eta zoramena. Begiak bustitzen dizkit mendiak, eta sikatu kresalak; zer esango dizut ba, herria da Amaia. Herria. Hori besterik ez, eta hori dena.



MAITASUNAK ITSUTU EZKERO, EZTAO ZER EGINIK



Esaera zaharra

Eskerrik asko!

Morkaiko Mendizale Elkartearen ize-
nean eskerrak eman nahi dizkizuegu El-
goibarko Itzulian parte hartu duzuenoi
eta baita lagundu diguzuenoi ere: Alda-
pazahar, Gure Bide, Karakate eta Kala-
mua soziedadeak, Altzolako Urak, Udal
Kirol Patronatua, Elgoibarko Udala, Eros-
ki, Netto, Bolintxo okindegia, Lanbroa ka-
fetegia, Bersistain Edariak, Idaraga kafe-
ak, Sahatzu, Patxi, Isabel Ormazabal,
Fraile, Landa, Iraola eta Ziarda harate-
giak, Dori urdaitegia, Ibartxiki eta Julio
Bueno ardoak, Pilar eta Bollar frutaden-
dak eta nola ez, homitze puntuetan eta
asistentzia lanetan lagundu diguzuenoi.

Bestalde, asteazketan mendi ema-
naldietara etorri zaretenoi ere, eskerrak.
Udal Kirol Patronatua, Kutxa, Musika Es-
kola, Bronymec eta Iriondo Kirolak ere es-
kertu nahi genituzke ziklo honetan eman
diguten laguntzagatik.

Datorren urtean ere honelako ekin-
tzetan gure ondoan izango zaituztegun
esperantzaz, jaso agur bat.

MORKAIKO M.E.

Zorionak txapeldunak!

Olalsa taldeko eta sektorera iritsi di-
ren Aterpe taldeko 4 jokalariei eskerrik
asko egindako ahaleginagatik. Lorea eta
Nerea entrenatzaileei, zuen lana eta la-
guntzarik gabe ezin izango zen ezer lor-
tu. Klubari, egindako ahaleginagatik eta
jokalariengan jarri duen konfiantzagatik.
Zuzendaritzako Antxon, Karlos eta Iñakiri,

ardura handia erakutsi duzelako. Joka-
larien ahizpei eta Igorri, haraino joan zi-
netelako animatzera. Eskerrak guztioi,
gurasoen partez. Orain Euskadiko txal-
ketaren bila!

INFANTIL NESKEN GURASOAK

Amorruaz pare bat hitz

Argi dago bai amorruz idatzitako hi-
tzak direla zureak, Ibai, baina ez gara gu
zure amorruaren erantzule. Horrez gain,
egiten dituzun oinarri gabeko akusazio-
ak egiteko amorrua ez da aitzakia nahi-
koa. Edozein izaerako kritikak onartzeko
prest gaude: gure kudeaketa eta MTik
herrigintza ulertzeko duen eredia... Edo-
zer kritika zenezake, baina ez dugu ino-
la ere onartuko "poltsikorako diru estra
zurrupatu edo norberaren etxea atondu
duzue zuen gustura" moduko baieztape-
nik. Gure kudeaketaren garbitasun eta
zuzentasun ezaren frogarik baduzu, utzi
BARRENeke iritzi zutabe hau alde batera
eta zoaz epaitegira. Bestalde, konbentzi-
tuta gaude amorrutik abiatuta ezinezkoa
dela etorkizunik eraikitzea, ez eta Men-
darok dituen erronkei aurre egitea ere.

Eutsi goixai!

MENDAROKO TALDE INDEPENDENTEA

OKERRAK ZUZENTZEN

Joan zen asteko alean ikastetxe
publikoetako irakasleen %51k gre-
ba egin zuela argitaratu genuen,
baina datu hori ez zen zuzena. He-
rri Eskola eta BH Institutuko datuak
jarri genituen, baina IMHkoak falta
ziren. Hauek dira zenbaki zuzenak:
Herri Eskolan 34 irakasletatik bi ira-
kaslek egin zuten greba; BH Institu-
tuan 100etik 60k eta IMHn 47tik
bakarrak egin zuten. Beraz, Elgoi-
barko ikastetxe publikoetako ira-
kasleen %34ak egin zuten greba
maiatzaren 15ean.

OHARRA:

BARRENeke irakurleei gogorazai
nahi diegu Udal Hauteskondeei
buruzko orri berezia kaleratuko
dugula astelehenean, maiatzaren
28an. Bertan, Elgoibar eta Men-
daroko emaitzak eta alderdi poli-
tikoen balorazioak jasoko ditugu.
Orri hau astelehen goizean esku-
ratu ahal izango da herriko okin-
degiegetan eta zenbait taberna
eta komertziotan.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENeke ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
S.L. DE ED. BARRIA

ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione
Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana
Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia,
Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol
Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil,
Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain
Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Geru
TIRADA 4.630 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **Joan zen asteko alean azaldu zen kexa argitu nahi dute Merkatu Plazako saltzaileek:** "Badakigu kontenedoreetan zabor asko egon dela, ostegunetan batez ere, saltzaile gehiago etortzen direlako. Baina uste dugu, kontenedorean zegoen generoa saltzeko desegokia zela. Horrez gain, Plaza Merkatuko zaborra egunero batzen dute. Toki honetan, Plaza Merkatuko saltzaileez gain, kaleko jendeak eta inguruko dendariak ere botatzen dute zaborra, eta argi asko ikusten da kartel batean kontenedore hauek Merkatu Plazako saltzaileentzat bakarrik direla".



GALDERA

• **Trinitateetako Haurren Tanborradan parte hartzeko Musika Eskolako ikasle izan behar al da?:** Musika Eskolan ez dabilzan ume bazuk etorri zaizkigu BARREnera galdera hau eginez. Trinitateetako Haurren Tanborrada Musika Eskolako ikasleentzat bakarrik dela esan omen diete eta eurak ere parte hartu nahi dutela. Musika Eskolara deitu dugu, eta hauxe izan da jaso dugun erantzuna: "Trinitateetako Haurren Tanborrada gure ekintza bat da eta gure ikasleek lehentasuna daukate. Dena dela, urtero jo izan dute gure ikasleak ez direnak ere, ez dugu inor baztertzeko. Dagoeneko hasi gara entseguekin, baina norbaitek haurren tanborradan parte hartzeko interesa baldin badauka, etorri dadila lasai, Musika Eskolara."



TXALOAK

• **Txalo bat Morkaiko Mendizale Taldeari Elgoibarko Itzulia antolatzeagatik:** "Beste behin ere, arrakasta izugarria izan du Elgoibarko Itzulia. Egurladi txarra egin arren, jende mordo batek hartu zuen parte pasa den domekan Elgoibarko Mendi Itzulian, eta benetan ondo pasatu genuen. Txalo bat merezi duzue, eta bide batez, parte hartzaileak ere txalotu nahi ditut. Eurria eta ekaitzak ez zituen herritarrek beldurtu eta sekulako giroa izan genuen ibilbide guztian zehar. Mendizaletasuna bizirik dago elgoibartar artean. Eskerrik asko guztioi".

• **Zorionak Elgoibarko Infantil Txikien Taldeari:** "urte guztian primeran jokatu ondoren, Kopa irabazi duzue. Zuek zarete gure txapeldunak! Jarraitu horrela gazteak! Txalo bero bat jokalarri guztiei eta entrenatzaileari ere bai".



Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12




Elgoibarko
Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNOAREN *Luma*

Zapatentzat sandaliek eskeletuen antza dute...

Bihotza aztertu ostean, maitasunak beldurra ematen du. Garuna behatu, eta pentsatzeak ikara sortzen dit. Anatomia ikasi ostean poemek zentzua galtzen dute. Arkitektura perfektuen inperfekzioa ezagutu nahi nuke.

Margarita batek zutik egoteko zurtoina behar duen modura, aitona egurrezko makila beharko du.

Fantasiatzko eskeleto bati buruz hitz egin nahi nuke, liburutik agertzen ez den horietako bati buruz. Nik nirea izango dut, zuk zurea...

Egunero eusten nauen sostengua da, goizetan ohetik altsarazi eta gauean lokartzen nauena. Begiak itxi ahal izateko derigorrezko dosia, droga baten antzekoa. Nireak agian zuretzat ez du zentzurik izango, edo agian bai. Begi bakoitzak mundu berdina behatu arren, berea eraikitzen du. Begiratzeko modua arabera, aukeratutako paisaien arabera...

Zapatek, sandaliek eskeletoa diruditela diote. Hankek, aldiz, hezurdura dute euren armazoitzat. Hankentzat hezurrak, zapatentzat sandaliak, aitonaentzat egurrezko makila, margaritarentzat zurtoina... Eta zuretzat?

Maialen Olazabal

BOTAINK!

Egingo al dugu Udal Hauteskundeetako Elgoibarko kiniela?

Hau da Botaink! atalean elgoibarren.netek egin duen galdera eta ondorengoak jasotako erantzun batzuk dira:

Herrigintza: Elgoibar, mila biztanle baino gutxiagoko herria balitz eta alkatea herritarren artean aukeratu beharko bagenu, ez alderdi politikoen artean, zein izango litzateke irabazle?

Ni neu: Eman diezaiegun sustotxo bat EAJko kideei boto kontuetan. Ovidiok BARRENen esaten daban moduan, gehiengo absoluturik gabeko udaletxe bat egin dezagun danon artian.

Elgoibartarra:

E.A.J. 7 E.A. 2
P.S.O.E. 3 P.P. 2
E.B.-ARALAR. 3

Zoritzarrez, Batasuna ezin da aurkeztu hauteskundeetan.

Pertsonak, ez alderdiak:

Jonpe: 5 Alfredo: 5
Iñaki: 3 Ovidio: 2
Unai: 2 Javier: 0
Alderdikeriak alde batera utziko bagenu...

www.elgoibarren.net


ELGOIBARKO DATU GUZTIAK

DOMEKA GAUEAN

Ikusi eta eman zure iritzia!

www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



UDAL HAUTESKUNDEAK 2007

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

[AKORDATZEN NAIZ]




MANOLO UNZILLA

1924an jaioa

«Lan-ibilbidia»

1960-xan laga naban dana. Futbola lagata, lehenengo pintxe sartu nitzan Gabilonduetan. Pistola-fabrikia zagon Elgoibarren, eta gero Bitorixara jun zan fabrika hori. Handik urten nitzan, eta estazio aurrian zauan beste tailler batera: Txankia esaten ziuen, baiña Loiola zan. Fresadorak eta egitten zittuen. Urtebete edo bi egin genduzen ajusta-

dore ofiziuak ikasten. Han goazela, Sigmatik deitu ziguen, eta ajustadore ibili giñan hiru urtian. Handik erten, eta Gozua taillerra ipiñi gendun Toletxe gaiñian. Rektifikadorak egitten genduzen han. Hortikan, Acme-ra, eta han hartu ninduen komertzial. Ibili nitzan komertzial beste urte morduak, jubilau arte. 69-xan hartu naban, eta 1988ra arte, komertzial Acmekin.



[GURE BERBAK]

Fonologia (10)

BOKAL ARTEKO KONTSONANTIEN LEUNTZIA ETA ERORTZIA

Pasa dan astian, kontsonante batzuk bokal artian ahoskatzerakuan nola leuntzen edo galtzen ziran ikusi gendun; leherkari ahoskatunak ziran (b, d eta g). Gaur ikusiko dogu beste bokal batzuk ere leuntzen edota galtzen dirala, leherkari hórretatik aparte. Ahoskatzerakuan oso errez galtzen dana R biguna da (r bakarra, danok ulertu daigun). Oso normala da bokal arteko ingurunieta galtzia:

• **R** ⇒ Ø / V_V

Adibidiak: *E(r)e (au ee bai), zu(r)ixa, ze(r)ako ze(r)a, afa(r)i-me(r)ixendia, jene(r)alian, so(r)ua, ke(r)izpia ...*

• **J** ⇒ Ø / V_V

Adibidiak: *Gustatze(n) (j)ata, akordatzen ba(j)ako, ikusi na(j)aittuan, laga ein biha(r) (j)ako ...*

Ahoskera hau gaztien artian indargaltzen ari dela esan behar. Badira beste hizkera askotan hain sarri galtzen ez diran kontsonante batzuk ere; adibidez, honako hau:

• **K** ⇒ Ø / V_V

Adibidiak: *Etxa(k)ixat, ezta(k)it, ma(k)liñat bider ibili naiz han (baita [majiña (ba)] ere)...*

Azken bokal-leuntze honek, testuinguru hauetan, salbuespen dirala esan bihar, eta biharbada lagunarteko hizkera bizkorrian galtzen dirala, oso zaila da-eta bokal arteko -K- kontsonante ahoskaria erortzera allegatzia.

Jesus Mari Makazaga

Malape taberna
Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

Bulkatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

MARIA ELENA LEDESMA JUANITO AZKUEREN ALARGUNA

«Juanito Azkue maitagarria, eskuzabala eta ona izan zen»

Maria Elena Ledesma 83 urteko argentinarra da. Iragan den apirilaren 27az geroztik, Elgoibarren izan dugu, duela bi astera arte. Maria Elenarentzat honakoa, Euskal Herrira eta Elgoibarrera bidaiatzen duen estreinako aldia izan da. Gure herrira burutu duen bidaiaren eta egonaldiaren arrazoia, bere senarra zenaren, Juanito Azkue elgoibartarraren senitartekoak eta honen sorteria ezagutzea izan dira. Izan ere, Juanito Azkuek oso gazterik Argentinara erbesteratu behar izan zuen eta harrezkero, ez zen sekula Elgoibarrera bueltatu. Gauzak horrela, Maria Elenak bere bizitzaren berri eman digu.



Maria Elena Juanitoren Elgoibarko etxearen aurrean.

► Nolatan etorri zara Elgoibarrera?

Fernando Leonardo eta Maria Jesus Azkue sendiaren adeitasunari esker. Bereiek gonbidatu ninduten Elgoibarrera. Aldez aurretik ezagutzen nituen, Argentinara joan baitziren bisitan, duela zenbait urte. Elgoibarren egon naizen denboran, nire senar zenaren senide guztiak ezagutu ditut, aurrez ez bainuen inor ere ezagutzen eta guztiak oso ongi hartu naute. Gainera, inguruotako leku ugari erakutsi dizkidate: Arantzazu, Getaria, Donostia, Loiola, Gernikako Batzar Etxea... Gisa berean, Aittola Zaharren anaitasun bazkaria egin genuen. Egia esan, ezin naiz kexatu, oso eskerturik nago. Euskal Herritik gehien liluratu nauena, hemengo kostaldea eta landaretzaren berdetasuna izan dira. Jendea ere, oso atsegina da.

► Non eta noiz ezagutu zenuen Juanito?

Dean Funesen, 1940. urte aldera, eta nire anaia nagusien bitartez, euren laguna baitzen. Nik garai hartan 16 urte nituen eta Juanitok, berriz, 27.

► Inoiz aipatu al zizun zer sentitu zuen hain gazterik Argentinara migratu behar izatean?

Tristura handia, sekula ez baitzuen horren gainean hitz egin. Nolanahi ere, bere ama, aita eta anai arrebei buruz hitz egiten zuen; oro har, hemen, utzi behar izan zuen guztiaz. Txikia zela, bere gurasoek (Feliciana Alonso eta Francisco Azkue) hainbesteraino mimatu zuten, harik eta egun batean, artean txikia zela, erre-



Maria Elena eta Juanito Argentinako beraien etxean biloba txikiarekin.

Juanito Azkueren Elgoibarko lloba batek adierazi digunez, Gerra Zibila abian zelarik, Juanito Azkuek fraideen eskola batean ikasten ziharduen Murtzian. Frankoren garai ilun hartan, errepublikaren alderdian egoteaz leporatuta, eta gerta lekionaren beldur, fraideen orden bereko Frantziako eskola batera joan behar izan zuten, nahiz eta benetan, errepublikarekin inolako zerikusirik ez eduki. Juanito Azkue euskal hizkuntzaren ikertzaile sutsua zen eta euskararekin loturiko liburu ugari zituen, baina, hori baino ez. Hala ere, Frantzian zegoelarik, Euskal Herria ez ekartzeko ohartarazi zieten hemengo senitartekoei, fitxa beltza zuela jakinaraziz. Hori horrela izanik, Juanitok Frantzian zituen izeba batzuen bitartez, Dean Funesera (Argentinako Cordoba iparraldera) migratu zuten.

getarako zein opari nahi zuten galdetu ziotenean, Juanitok, "hor goian zintzilik da goen pilota handi hori nahi dut" erantzun zien, ilargiari erreferentzia eginez.

► **Nolakoa zen Juanito?**

Juanito oso langilea zen. Argentinan kontulari moduan jardun zuen lanean. Lanaz aparte, tenisa atsegin zuen. Aurretiaz, Euskal Herrian bizi zenean, palan aritzen zen eta hortik sortu ziizaion, tenisarekiko zaletasuna. Era berean, tangoak abestu eta dantzatzun zituen. Hitz gutxitan, oso pertsona maitagarria, eskuzabala eta ona zen; aita ona eta senar hobea. Gainera, oso pertsona intelektuala zen. Gaztelera, euskara eta frantsesa ez ezik, alemaneraz ere zertxobait bazekien.

► **Nolako bizitza izan zenuten Argentinan?**

1944. urtean ezkondu eta guztira sei seme alaba eduki genituen. Nire semerik gaztetxoena eskolara joaten hasi zenean, irakasle lanari heldu nion, Castelar-ko eskolan, Lehen Hezkuntzako irakasle moduan. Beranduago, gure seme alabak haziak zeudenean, Buenos Aires-era lekuz aldatu ginen. Hemen, Buenos Airesen, nire senar zenak, kontulari moduan lan egiten jarraitu zuen "Jugueteria Colon" izeneko

jostailu denda handi batean. Juanito jubilatuz zenean, Barilochea etorri ginen bizitzera. Hiru urte eman genituen hemen elkarrekin, bera hil zen arte, 1993an.

**«Juanitok,
langilea
izateaz gain,
tenisa
atsegin zuen»**

► **Ez al zitzaion inoiz Juanitori Elgoibarrera bueltatzerik burutik pasa?**

Ez dakit, sekula ez zidan esan. Oso gorderik zuen kontua zen berarentzat, ziurrenik ez sufritzeko. Paquita eta Salome arabekin harremana mantendu zuen eskutitz bidez eta hauek hil zirenean, anaia Angelekin idazteari jarraitu zion. Nire seme Daniel izan zen aurreneko Elgoibarrera etorri zena, duela 18 urte inguru.

► **Euskal Etxeetan elkartzeko ohiturarik eduki al duzue?**

Nik Barilocheko Mendiko Euzko Etxean idazkari lanetan jardun nuen 7 urtez eta bertako liburutegiaz ere, arduratzen nintzen. Euskara irakasle bat etorri zen, baina, ni ez nintzen ikastera animatu, behin adin batetik aurrera zailagoa delako. Nire senarrak zera esaten zidan: "euskara hain hizkuntza zaila izanagatik, deabruak berak ere hainbeste urtetan ezin izan zuen ikasi". Euskal Etxean ekitaldi ugari burutzen genituen. Esaterako, San Inazio Loiolakoaren egunean, meza eta bazkaria egiten genuen. Ikurrinaren eguna ere, ospatzen genuen. Argentinako Euskal Astearen ere, behin egona naiz eta oso festa politak egiten dira, dantzariak, musika...

► **Zer egiten duzu orain, zure aisialdi denboran?**

Barilocheko "Las Damas de Rosa" izeneko irabazirik gabeko erakundearekin elkarlanean aritzen naiz, Barilocheko ospitalean bertako gaixoei lagunduz. Horetaz gain, nire seme alaben etxera joaten naiz eta beraien nire etxera etortzen dira. Guztira, 17 biloba ditut eta beste bi birbiloba. Biloben artean, 11 mutilak dira eta neskek, beriz, 6 dira. Honenbestez, Azkue abizenaren jarraitpena bematua dago Argentinan.

[PROTAGONISTA]



Uxue **Alberdi**

Idazteaz gain, bertsolaritzan ere, abila da Uxue Alberdi. Oraingo honetan, Deban jokatu zen Plazatik Gaztetxera bertso txapelketa irabazi du. Ofizioko lanetan, elgoibartarra eta Mikel Arrillaga eibartarra nabarmendu ziren. Aipagarriak izan ziren Mikelek zortziko txikian eta koplatan botatako bertsoak. Bakarkako lanetan, ordea, Uxue Alberdik aurrea hartu zion bi bertso borobil kantatuz. Honenbestez, azken sailkapenean arreta jarritz, elgoibartarra lehen postuaz jabetu zen, 194, 5 punturekin. Modu honetan, finalerako txartela lortu du Uxuek.

[NOTIZIA]

9.041 elgoibartarrek izango dute Udal Hauteskundeetan botoa emateko aukera

Duela bi aste hasi zen kanpaina politikoa gaur gauetan amaituko da. Bihar erreflexio eguna izango da, eta domekan, maiatzaren 27an, Udal Hauteskundeak egingo dira. Guztira, 9.041 elgoibartarrek izango dute boto eskubidea. Goizeko 9:00etatik iluntzeko 20:00ak arte egongo da bozkatzeko aukera. Herritarren botoekin aukeratuko dira datorren legegadirako 17 zinegotziak.

Leku aldaketak

Aurtengoan aldaketa batzuk egon dira hauteslekuetan. Plaza Txikian bozkatzaren zutenek, Kultur Etxean eman beharko dute aurten botoa. San Migel eta San Pedro auzoko bizilagunek, Santa Klarako eskoletan bozkatzaren zuten lehen, eta hauek



ere, Kultur Etxera gerturatu beharko dute domekan. Azkenik, sail berri bat sortu da Urruzuno, Sallobente, San Roke, Basarte eta Erretxindikoentzat. Hauek guztiak IMH-ko kafetegian bozkatu beharko dute.

[ZENBAKIA]

140.000

Ludoteka, Gazteleku eta Gazte Informazio Gunea kudeatzeko 140.000 euro emango ditu Udalak. Lehiaketa bidez au-

keratuko da guneen ardura hartuko duen enpresa. Dagoeneko ateratu dira baldintzak. Epe laburrean ezagutuko dugu irabazlea.

asteko [ARGAZKIA]



Sardina usainean esnatu ziren zapatu goizean San Bartolome parrokiako arkupeak. Trinitateetako Danborradako Batzordeak antolatuta, sardina eta sagardo dastaketa izan zen. Euro batean hiru sardinal Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina Mausitxa txarangak berotu zuen giroa. Antolatzaileek uste eta nahi baino jende gutxiago ibili zen, baina bertaratu zirenak gustura ibili ziren. Tanborradakoen egun handia ekainaren 2an izango da, orduan beraiek izango dira protagonista nagusiak. Tanbor hotsak entzuten hasi gara, dagoeneko.

Ballegoitixiko industrigunearen proiektua legez kanpo dagoela dio Ezker Batuak



Udalak Ballegoitxi ingurunean industrigune berri bat egiteko proiektua onartu zuen joan zen hileko plenoan, Ezker Batuaren kontrako botoarekin. Proiektu honetan, Udalaren lursailaren %10a Spri Lur enpresari eskainiko zaiola adierazten da. Unai Zulaika eta Jabi Aznalez argi eta garbi esan dute ez daudela Elgoibarren industrigune berriak egitearen kontra, "baina ez edozein modutan". Ezker Batuako kideek azaldu digutenez, Udalak onartutako proiektu honek Lurruaren Legeko bi artukulu urratzen ditu, beraz, proiektua "legez kanpo dago". Be-

raien esanetan, "Industria Departamentuak ez du oraindik lurak eskaintzeko legerik onartu, eta bestalde, emateko diren lursailak tasatuak egon behar dute, eta oraindik ez dakite zein lursail izango diren ere".

Egoera arraroa

Ezker Batuaren ustez, egoera hau oso arraroa da. "Legeladia amaitzeaz dagoela onartu dute proiektua eta sartuko den Udal Taldeak ezingo du inolako aldaketarik egin". Ezker Batuak, proiektu hau atzera bota eta beste modu batean egiteko eskatzen dio Udalari.

[MOTZ-MOTZIAN]

Ermuaranbide kaleko bizilagunen bazkaria

Ermuaranbide kaleko bizilagunek bazkaria egingo dute datorren irailaren 22an. Interesatuek ekainaren 15erako eman beharko dute izena. Honekin batera, erretratu zaharren erakusketa bat antolatu nahi dute, eta horretarako auzotar guztien laguntza behar dute. Informazio gehiagorako 943741238 (Arrate Azpeleta) telefonora deitu daiteke.

Burgosera bidaia

Haizea Emakume Taldeak Burgosera bidaia antolatu du, datorren ekainaren 10erako. Lehenengo hiria bisitatuko dute gida turistikoko batekin eta eguerdi aldean, bazkaria egingo dute. Interesatuek Pitxintxun eman dezakete izena. Bazkideek 45 euro ordaindu beharko dute eta gainontzeak 48.

Ikasketa gela

Maiatzaren 27an, domekan, Udal Hauteskundeak direnez, ikasketa gela itxita egongo da asteburu honetan. Kultur Etxeko sotoan hauteskundeetarako mahaiak jarriko dira.

Glotodidaktika ikastaroa

Euskara irakasle izan nahi dutenentzat, glotodidaktika ikastaroa antolatu du AEK euskaltegiak. Ekainaren 26tik uztailaren 21era luzatuko dira eskolak. Klaseak Donostiako Antiguoa auzoko AEK euskaltegian emango dira. Informazio gehiago 943327172 telefonon.

55 urtekoen bazkaria

1952an jaioetakoek 55 urte beteko dituzte aurten, eta hori ospatzeko, bazkaria egingo dute datorren ekainaren 16an, Sigma jatetxean. Interesatuek 50 euro sartu beharko dituzte La Caixako kontu honetan: 2100-4168-74-2100163636. Izena emateko epea ekainaren 8an amaituko da.

Markel Olano, EAJren Foru Aldundirako hautagaia, Elgoibarren izan da



Markel Olano eta Alfredo Etxeberriak IMH bisitatu zuten asteazken goizean. Erreminta makinaren alorrean nagusi da IMH Debabarrenean, eta eskualdeko enpresentzat IMHk daukan garrantzia azpimarratu zuten. Olanoren esanetan, erreminta makinaren etorkizuna formakuntzan eta berrikuntzan dago. Hautagai jeltzaleek, I+D+i proiektu guztiak bultzatuko dituztela adierazi zuten, eta alor honetan dauzkaten proposamenak azaldu zituzten. IMHtik atera ondoren, San Lazaro egoitza bisitatu zuten.

Datorren domekan, hilak 27, izango dira Udal Hauteskundeak.

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?

CARMEN RODRIGUEZ

Etxekoandrea

56 urte



“Merkadilloa Plaza Handira ekartzeko eskatuko nioke, Sig-mara oso jende guxi joaten da. Azken lau asteetan ni ere, ez naiz joan. Parkeak zaintze-ko ere eskatuko nioke.”

MARIA LEAL

Ikaslea

10 urte



“Bide gorriak jartzeko eskatu-ko nioke. Bizikletan ibiltzea gustatzen zaigu eta herrian ez dago lekurik. Kiroldegiko igerilekua ere handitu egin behar da.”

NAIARA MAZORRIAGA

Administraria

31 urte



“Ume txikia daukadanez, parkeak eskatuko nizkioke al-kateari. Bestalde, erdigunea oinezkoentzako izatea, auto asko ibiltzen da bertan eta ezin gara lasai ibili.”

J. JUAN BARRENETXEA

Ingeniaria

30 urte



“Kanpainan zehar esan duen guztia betetzen badu, konformatzen naiz. Dena de-la, nekazal-auzoentzako la-guntza gehiago eskatuko niz-kioke.”

[BAI ala EZ?]

Erabakita al daukazu zure botoa?

BAI %88

“Bai. Oso argi daukat, aspalditik daukat erabakia hartuta. Ni-retzako kanpaina guztia soberan egon da. Udal Hauteskunde-etan pertsonak dauka garrantzia, ez alderdiak.”

EZ %12

“Ez. Oraingoan zalantza ugari dauzkat. Ez dakit zer egingo dudan, eta azkenengo egunera arte ez dut erabakirik hartuko. Akaso, botoa ematera ere, ez naiz joango!”

Datorren asterako... **3 jardunaldi bakarrik falta dira aurtengo Futbol Liga amaitzeko. Reala eta Athletic lehenengo mailan geldituko al dira?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) **ERANTZUNA**

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiko Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozeelai.com

[GOMENDIOA]

Erretzeari lagatzea: gizentzea ez da aitzakia

Gehiegizko kiloak ez dira erretze-ari ez uzteko aitzakia. Sendagi-leen komunitateak tabakismoa uzteak pisua areagotzea ondorioztatzen duela egiaztatu du baina, gizentze hori behin-behinekora da eta osasunarentzat inolako arriskurik ez du.

Erretzeari utzitakoan, aurreneko lau hiletan pertsonaren pisua bi-lau kilotan igotzen da baina hori irabazi bezain erraz gal daiteke antsietatea suntsitu eta morrontza gainditutakoan. Hala ere, garrantzi handikoa da ohitura txar baten ordez (erretzea) beste bat (asko eta gaizki jatea) ez hartzea. Horretarako, elikabide zuzena egitea laguntzaile izango da.

Tabakoa uzteak antsietatea sorrarazten du eta, ondorioz, umore txarra, nerbioak eta sentiberatasuna, sortzen dira, eta egonezin fisikoa eta takikardiak ere, zenbaitetan. Lau hilabetez luzatzen diren sintoma horiei, beste bat ere erantsi ohi zaie: gehiegi eta era kaotikoan jateak probokatzen duen larritasuna.

Joera horren aurkako elikadura-planak hiru zutabe dauzka: organismotik tabakoak utzitako toxinak garbitzen laguntzea, nikotinaren abstinentzia gainditzeko estura lasaitzea eta era osasuntsuan jaten ikastea, pisu osasungarrian mantendu ahal izateko (lau kilo baino gehiago ez hartzeko) eta, noski, tabakoa utzi

denetik sei hilabete pasatu baino lehenago argaltze dietari ez ekitea.

Aholkuak

- Ur gehiago: erretzeko gogoan agertzen den bakoitzean baso bat ur hartu behar da. Likido gehiago edaten denez, gehiago kanporatzen da eta tabakoaren toxikoak azkarrago suntsitzen dira.

- Barazki eta fruta diuretikoak: apioa, borraja, letxuga, zainzuriak, baratxuria eta tipula. Udare eta sagarrak.

- Txiza gehiago egiten laguntzen duten landareak: azeri buztana eta txikori belarra.



[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Naturhouse

Dietetika eta nutrizioa

San Frantzisko, 26 943 74 10 78

Ordutegia: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo baltz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsalde)

Jausoro, 6 behe

Amalurra Fisioterapia

Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsalde.

San Frantzisko, 58 behe (Maalan) • Tel.: 943 53 14 63

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Ezker Batua / Aralar

herria ezkerrera ekarri

bozkatu



aralar



**Ezker Batua
Berdeak**

www.ezkerbatua-aralar.com




ELGOIBAR BH INSTITUTUA 2007/08 IKASTURTEA

Arreitorno, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbh.net

www.elgoibarbh.net



ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Ibilgailuen elektromekanika

Karrozeria

Merkataritza

Erizaintza laguntza osagarriak

GOI MAILAKO ZIKLOAK

Automozioa

Administrarritza eta finantzak



Aurrematrikula epea: ekainaren 1etik 7ra

Azpiegitura teknologiko aurreratuen, enpresa simulatuak, lan praktikak European, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobekak.

ETOR ZAITEZ ETA EZAGUTU GAITZAZU ZURE ERABAKIA HARTU AURRETIK.

07 Udal

Hauteskundeak

[**Gizartegintza**]



IÑAKI ODRIOZOLA
ANVko hautagaia

«Lau urtean behin
bozkatu eta
horrekin
konformatzea ez da
gure eredia»



ALFREDO ETXEBERRIA
EAJko hautagaia

«EA izango da
Gobernu
Talderako gure
lehenengo
aukera»



IÑAKI ODRIOZOLA

ANVko hautagaia

«Gaur egungo egoeran ez dago udal demokratikorik egiterik»

ANVko zerrendaburua dugu Iñaki Odriozola. Sorpresaz hartu du bere alderdiaren ilegalizazioa. Zerrenda batzuk onartu izana eta beste batzuk ez, oso arraroa iruditu zaio. Dena dela, maiatzaren 27ko Udal Hauteskundeetan egongo dira. Herritarren babesa eskatzen du eta datorren legealdia, amaitzeaz dagoena baino hobea izango denaren itxaropena dauka.

- **Zergatik onartu duzu ANVko zerrenda-burua izatea?**

Ezker Abertzalean lan ildo asko daude, eta zerrenda-burua zein den ez da hain inportantea; ideiak, asmoak eta programak baizik. 4 urtetan asko ikasi dugu Einbion harrigintzari buruz, lan handia egin dugu batzordeetan, jende askorekin egon gara, eta herriko batzartean egokia iruditu zaigu arlo horretan aritu garenok jarraitzea. Ilusio handiz aritu gara eta horretan gaude.

- **Zein garrantzia dauka zure bizitzan militantzia politikoak?**

14 urte nituenetik ari naiz etengabe, Ezker Abertzalearen arlo desberdinetan, beraz, niretzat militantzia oso inportantea da. Gizartea beste modu batean antolatu nahiko nuke, herritarren bizimodua hobetu, herriaren itxura aldatu, gure hizkuntza eta kulturari eutsi, eta horrek ordu asko eskatzen du, baina pozik egi-

ten dugu, merezi duela uste dugulako. Txarrena, agian, familiari eta lagunei ere orduak kentzen dizkiogula.

- **Nolakoa aurreikusten duzu zuen jarduera politikoa?**

Zoritxarrez, duela 4 urte bezala, berriro ere baztertu nahi gaituzte. Halere, ez dut ezer aurreratu nahi. Guk akordio orokorra proposatuko dugu Udala demokratizatzeke. Ikusi egin beharko da. Duela lau urte bota gintuzten Udaletik, eta kanpotik aritu gara lanean. Horrek alde onak eta txarrak izan ditu. Udalarekiko harremana gogorra izan da, ezatsegina. Beti borrokan, informazioa lortzeko, kritika politikoak era pertsonalean hartu izan dituzte askotan, plenek gogorrak izan dira, harreman pertsonal batzuk apurtu dira, lapurren kasuan, adibidez. Bestalde herriarekin bat eginik aritu izan gara, eta momentu oso onak izan ditugu.

- **Zeri diozu beldur udaletxean sarzkeko orduan?**

Beldurrik ez baina ardura ematen diit herritarren eskaerak Udalera eramatean, ez izatea behar bezala erantzuteko gai. Bestetik, boterean daudenen jarrera orain artekoa bezalako itxia eta autoritarioa izateak kezkatzen nau.

- **Alkate izango bazina, zein izango litzateke zure lehenengo lana?**

Batetik, azken lau urteetan gertatu den merkadilloaren istilu tamalgarria konponduko nuke. Udalaren burugogorkeriagatik konpondu ez den gaia da. Herri erdira itzultzeaz gain, epaitegian Udalak jarritako salaketak, isunak eta izandako galerak konpondu behar dira. Bestetik, Udaleko kargu politikoaren soldatak, dietak, bazkariak... begiratuko nituzke, eta austeritatea helburu, kontrol zorrotza ezarri, neure soldata ere jaitsiz, behar izanez gero.

- **Zeintzuk izango dira zure alderdiaren lehenengo lanak?**

Gure Herri Programan agertzen dira, eta dozenaka herritarrekin egon ondoren erabaki dugu. Lehenik, azken lau urteetan sumatu ditugun hutsuneak daude, eta egia esan, gizarteratuak daude, besteen programak ikusiz gero: Plaza Txikiko Aisialdi gunea, San Lazaro egoitza, ongizate planifikatuago eta indartsuagoa, euskararen erabilera benetan bultzatzea administrazioan eta kalean, kiroldegiaren etorkizuna, frontoia... Bestalde, hirigintza arloa inportantea da, eraikitzen denak gure herria betirako baldintzatzen duelako. Ondo pentsatu behar da: etxebizitzaren arazoa, industriguneen kokapena, ingurugiroaren errespetua, hesi arkitektonikoak, errotanda arriskutsuak, arau subsidiarioak berritzea...

- **Nolako gobernua osatu daiteke Elgoibarren?**

Gaur egungo egoeran ez dago udal demokratikorik egiterik. Herritarren nahiaren araberrako gobernu batzordea osatu beharko litzateke, bozken proportzioan. Gero, bakoitzak gaiaren arabera, aliantzak bilatu beharko litzuzke.

- **Nola ikusten duzu herritarren partaidetza udaletxean?**

Lau urtean behin bozkatu eta horrekin konformatzea, ez da gure eredu. Hori demokrazia elitista da, eskumakoena, PNVrena. Guk demokrazia partehartzaileria nahi dugu. Eta bozka horretaz gain,

herriaren nahiak Udalera heldu behar dira, batzordeetan eta plenoetan herritarren iritziak entzun, eta behar izanez gero, galdetu egin behar zaio herri kontsultak egin ez, esaterako.

- **Etxebizitzaren gaia nola jorratuko duzue?**

Ez da etxebizitza gehiago eraikiko herri honen beharren ikerketa sakona bideratu arte. Etxebizitza sozialen aldeko apustua egiten dugu. VPoko etxeak bai, etxebizitza sozialak bai, baina ez etxe libreak egiteko aitzakia bezala. Beharren arabera, eta beharrak nabariak dira, Etxebiden 403 herritar baitaude izena emanda. Bestalde, etxebizitza hutsen jarraipena eta hauen merkaturatzea bideratu behar da, alokairuzko etxebizitza sozialen sarea indartuz. Azken baten, Udaletik egin daitekeenaren neurrian, beste modu bateko etxegintza politika herrikoia, hirigintza arrazional baten barne.

«Udaleko kargu politikoaren soldatak, dietak... begiratuko nituzke»

- **Euskararen alorrean pausu berriak eman behar al dira?**

Datu adierazgarria dago Elgoibarren: ezagutzak gora egiten duen arren, erabilerak behera egin du. Udalak badu euskararen normalizaziorako plana, baina ez du herrira begira garatzen, burokrazian galdu da, ez du parte hartzea bultzatzen, eta batzordea behin bildu da 4 urtetan. Anbulategian, euskararen erabilera ez da bermatzen. Euskaltegien jarduna indartu behar da, batik bat, helduentzat, emigranteentzat doakotasuna ezarri.

- **Gero eta etorkin gehiago dago...**

Gai honetan giza arloa eta kulturala daude. Batetik, etorkinen eskubideak, langile diren neurrian, herritar direlako, zaindu eta bermatu behar ditugu. Bestalde, euren ohiturak errespetatuz, gureru hurbildu behar

ditugu, erraztasunak emanez: euskara ikas-teko, gurea dena ezagutzeko, eskolarako... Hemen pozik badaude, integratuko dira.

- **Utopikoa al da herriko kaleak autorik gabe ezagutzea?**

Herria oinezkoentzat izatea nahi dugu. Horretarako oinarritzko aldaketa batzuk eman beharko direla, bai herritarren ohituretan, bai baliabideetan eta azpiegituretan. Plaza Txikiko Aisialdigunea aipatzen dugunean, azpian parking-a behar dela esaten dugu. Horrela, kalea kotxez hustuko genuke, eta merkatarientzat ere mesedegarria izango litzateke. Ezin dena da partxeak jartzen ibili. Orain OTA jarri dute, eta ondorioa, San Roken jasan behar izan dugu batez ere. Plangintza orokorra behar da, herri guztirako, eta gu prest gaude ideiak emateko.

- **Zer eskainiko diezu etxeko nagusiei?**

Gai hau gero eta inportanteagoa da. Jendea gero eta gehiago bizi da, eta gero eta zerbitzu gehiago behar dira. Hor dago San Lazaro, Eguneko Zentrua, etxeetan egoten diren laguntzak, baina beti, Udala atzetik doa. Ezin duela ezer egin diote, baina, gure ustez, azterketa egin eta hementik urte batzutarako ideia orokorra balego, Aldundira edo beste edonora joango ginatete horren alde egitera. Aurrea hartu behar diogu etorkizunari.

- **Nolako imajinatzen duzu Elgoibar 4 urte barru?**

Ez naiz ausartzen esatera. Ezker Abertzalearekin kontaktuz, gauzak onera egingo dute. Gu bazterten saiatzen badira, txarrerako izango da, denontzat. Ez bakarrik egoera ez normalizatu izango dugulako, benetako oposizioa Udaletik kanpo egongo delako baizik. Horregatik animatu nahi diut herritarrek, ANVri bozka ematera. Ez da izango alferrikakoa. Alderantziz, zenbat eta bozka gehiago izan indar gehiago egin ahal izango dugu -kanpotik ala barrutik-, bai udaleko jauntxoien lana fiskalizatzeko, eskuineko politikak kontrolatzeko, eta, baita ere, Euskal Herrian ematen ari den autodeterminazioaren aldeko prozesu politikoa bultzatzeko.

HAUTAGAIAREN KINIELA:

Jokoz kanpo egonda, kinielarik ez duela egingo esan digu.

[Gizartegintza]



Gure erakundeek duela urte asko hasi zuten lanari jarraitu behar zaio, zailtasunak dituzten pertsonen gizarteratzen lagunduz. Hori ez da gizarte zerbitzuen erantzukizuna bakarrik, gehienetan, elkarkidetzara eskatzen du. Biztanleriaren zahartzearen inguruan erantzukizun politikoa dugunok erakundeen arteko elkarlanean konpondu beharreko benetako erronka dugu persona horien eta bere familien bizitza arintzeko. Ezinbestekoa zaio familia zaintzaileari egiazko sustapen sistema, beharrezkoak diren laguntza eta egitarauekin.

- Egungo baliabide aukerak handitu herriko beharrei erantzun-goa zaiela bermatzuz: San Lazaro egoitza, Eguneko Zentroa, etxeko laguntza zerbitzua, Jubilatuen Egoitza, tele-asistentzia...

- Norbaiten laguntzarik behar ez dutenentzat eta ezintasun psikikodunentzat etxebizitza tutelatuak.

- Formazio okupazionalako programekin jarraitu, lan merkatuara bideratutako ikastaroekin...

- Pobrezia, tratu txarrak, bergizarteratzea eta abarrera zuzendutako programak sendotu.

- Etorkinei orientazio zerbitzua eta laguntza eskaini gizarteratzeko.

- Drogomenpekotasunaren kontrako programekin jarraitu eta ekimen berriak bideratu.

- Gizarte eragileak koordinatu eta zubi lana egin beste erakunde batzuekin baliabideen zabalkundea, ezagutza eta erabilera hobetzeko.

- Mugikortasun arazo larriak dituzten pertsonak garraiatzeko plan-gintzak.

- Elkarkidetzara eta lan boluntarioa landu.



Gizarte gaien arloan, ahal den heinean elgoibartarren beharrak asetzea da gure helburua, premia handiena daukaten kolektiboek lehenetasuna emanez.

Adin ezberdinetako jendeak bizitza kalitate hobea izan dezan beharrezkoak diren esparru eta gune berriak sortu, eta daudenei erabilera egokia eman (hala nola: txiki-park, ludoteka, gaztelekua, gaztetxea, zaharren egoitza...).

Euskera mailan, martxan dauden proiektuak garatzen jarraitu (merkataritza, kirola...), eta batez ere, Udal barneko zein kanpoko komunikazioan euskeraren erabilera orain artekoa baino handiagoa izan dadin ahalegin berezia egingo dugu.

Euskera bultzatzeko gure eskutara heltzen diren proiektu berri guztiak aztertzeko konpromisoarekin jarraitu eta, ahal den neurrian, aurrera ateratzeko baliabideak martxan jarriko ditugu.

Kulturari dagokionez, herritarren partehartzea errazteko bideak zabaldu edo daudenak sustatzea da gure nahia. Ildo beretik, herrian dauzkagun kultur kolektibo ezberdinen presentzia areagotu nahi dugu urtean zehar ospatzen diren ekitaldi ezberdinetan.

Ahal den neurrian, kultur ekintzak kalera atera, era horretan herriko kale giroa aberastuz.

Herrian dauden kultur talde ezberdinek daukaten espazio beharrei erantzuna emateko asmoz, Aita Agirreko eskolen eraikuntza, aurrez eginda dagoen proiektua berreskuratzuz eta aztertuz, erabilera anitzeko eremu bihurtzeko aukera aztertuko genuke.



- Hirugarren adina: zahartzarora iristea garaipen pertsonal eta soziala izateaz gain, norbera garatzeko aukera bat ere, bada. Zahartzarora iristea bizitzari buruzko proiektu multidimentsional eta garatuago bat eskaintzen digu. Gainera, besteekin konpartitu daitekeen eta konpartitu behar den jakintza eskaintzen digu. Dependentsia daukaten nagusientzako zerbitzuak bultzatuko ditugu, itxaron zerrendak gutxitzeko. Beraien inguruarekiko harremana eta gizarteratzea bultzatuko ditugu. Persona Nagusien Kontseilua indartuko dugu, urteetan jasotako jakintza konpartitu dezaten. Azkenik, laguntza programak sortuko ditugu, bakarrik bizi edo Zaharren Egoitzara joateko zailtasunak dituzten nagusiak, ahalik eta denbora gutxien egon daitezkeen bakarrik.

- Etorkinak: gero eta gehiago etortzen dira gure herrira lanera edo bizimodu hobearen bila. Beraien integrazioaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, beraien eskubide eta betebeharrak guztiekin. Inmigratioaren Herri Plana egiteko proposamena daukagu, gure herriko errealitatea ezagutu eta etorkinen integrazioarako neurriak hartzeko.

- Gazteak: Gai jakin batzuetan lehenetasunak markatzeko orduan, gazteek asko daukate esateko eta emateko, eta hori jakinda, udaletxean gazteen protagonismoa handitzearen aldeko apustua egingo dugu. Besteak beste, ondorengo gaiekin dira garrantzitsuak: etxebizitza, gazteentzako lana, gizarte eta berdintasun politika, etorkinen integrazioan, herriko ingurugiroaren babesa, aisialdia...



- Ongizate arloa berrindartzea da gure proposamena. Horretarako beharrezkoa da gizarte laguntzei buruzko informazioa herritarrei ematea, eta arloan lan egiten duten herri mugimenduekin egotea.

- Osasun egoitzak: planifikazio familiarren egoera lotsagarria da. Astean kontsulta egun bat, txandak hiru hilabetetara, etab. "Jendarte langilearen" figura ere desagertu egin zen, eta ez dute berriro jarri.

- Guardiako farmaziak txandaka antolatzen dira hainbat herriren artean. Elgoibartik kanpo tokatzean arazo bilakatzen da zenbait jenderentzat batez ere, adineko pertsonentzat. Guk Udalak baldintzak jartzea eskatuko genuke: taxia ordaindu, laguntzak jarri,...

- Emakumea: batzorde espezifikoa nahiko genuke emakumearen gaia sakontzea beharrezkoa iruditzen zaigulako. Dauden herri mugimenduekin bat izatea oinarritzkoa da.

- Euskara: ezagutzak gora egiten jarraitzen duen arren, erabilerak behera egin du. Udalak badu Euskararen Normalizaziorako Plana, baina ez du herrira begira garatzen, burokratzian galdu da. Anbulategian, euskararen erabilera ez da bermatzen. Euskaltegien jarduna indartu behar da, batik bat, helduentzat eta etorkinentzat

- Etorkinak: alde batetik etorkinen eskubideak, langile diren neurrian zaindu eta bermatu behar ditugu. Bestalde, euren ohiturak errespetatuz, gura hurbildu behar ditugu, erraztasunak emanez euskara ikasteko.

- Kirola egiteko ohitura hedatuta dago baina kirol zerbitzuen egoera nahiko kaxkarra da: kiroldegia txikia da, frontoirik ez dugu...



Gizarte gaien banean, gure nagusiak dira lehenetsua markatzen dutenak. Beraien ingurunean bizitzen jarraitzeko erraztasunak eman behar zaizkie, horretarako beharrezkoak diren baliabideak emanez, bai beraiei eta baita euren senideei ere. Aisialdi eta ekintzarako guneak jarri behar zaizkie etxetik gertu. Batez ere, euren bizitzako protagonista izaten jarrai dezatela lortu behar dugu.

Dependentzia legea onartuta, ahalegin berezia egingo dugu ekonomikoki, eskaera guztiei erantzuteko.

Senideentzako babesa ere bermatu behar dugu, dirulaguntza edo beken bidez. Baina familia eta lan arloen kontziliazioaz hitz egiteaz gain, ekin egin behar dugu.

Honekin batera, etorkinen integrazioa bultzatu behar dugu, beraien eskubide eta betebeharrak argi azalduz.

Herritarren segurtasuna bermatu behar dugu, herritar guztiei euren espazioa emanez jendea hobeto bizi dadin.

Gazteen aisialdirako espazioak sortu behar ditugu, gazteak ordezkatuta sentituko diren guneak, alegia.

Kirol gune berriak eraiki behar dira, herritarren garapen fisiko, psikologiko eta soziala bultzatzeko.

Inguruko herriekin harremana erraztuko digun garraio gehiago eta hobe bultzatu behar da.

Azkenik, industria, merkataritza eta turismoa ere, ahaztu ezin ditugun alorrak dira.



Hauteskunde-koalizio honek, bakerako eta normalizazio politikorako eskubideaz gainera, eskubide sozial eta ekonomikoen berreskurapena eta defentsa ditu helburu.

Orain arte itzalean gelditu diren gaiak mahai gainean jarri nahi ditugu: kalitatezko zerbitzu publikoak, iraunkortasun ekologikoa, genero berdintasuna, bizitza publikoan parte hartzea, bizitza publikoaren gardentasuna, garapen-eredu ekonomiko eta soziala, gehiengoaren ongizatea, laguntza beharrean dauden kolektiboentzako arreta hala nola mendetasun egoeran diren pertsonentzat edo hirugarren adi-nekoentzat.

Gure ustez gai hauei lehentasuna eman behar zaie. Horrek ez du esan nahi hortan arituko garela bakarrik, eguneroko arazoei irtenbideak bilatu behar dizkiegu beti herritarren eta oposizioaren laguntzarekin, zeren eta inor baztertuta ez dugu ezer lortuko edo ez nahi adina.

Horregatik euskararen, kirolaren, herritarren parte hartzearen, emakumeen aurkako indarkeria bukatzearen, aparkalekuaren arazorekin bukatzeko, etorkinak integrazteko, etxebizitza babestuen, kulturaren, desberdintasun sozialak murriztea eta abarren alde lanean diharduten Elgoibarko herritarak, gizarte mugimendu eta erakundeekin bat egingo dugu euren bideari eusteko eta baita bultzada bat emateko ere.

Zuen laguntza beharko dugu arazo desberdineri iteera bat bilatzeko eta beste proiektu batzuk martxan jartzeko, elkarlanean dago gakoa.

ALFREDO ETXEBERRIA

EAJko hautagaia

«Herritarren beharrak aztertzen eta akordioak topatzen saiatuko gara»

Alderdi barruko istiluak-istilu, Alfredo Etxeberria izango da EAJren alkatezarako hautagaia. Jaiotzez elgoibartarra da, ezkondua dago eta bi urteko alabatxoaren aita da. Gaztetatik aritu izan da politikan eta erronka berri hau ilusioz hartu duela kontatu digu. Giro politikoa nahasia den arren, baikorra da eta alderdi politiko guztiekin, herriaren alde lan egiteko adostasunak bilatzen saiatuko direla adierazi digu.

- **Zergatik onartu duzu zerrenda buru izatea?**

Herrigintzan aritzeak ilusioz betetzen naudelako. Bestalde, erronka bat da niretzat EAJ-PNV alderdiaren izenean horrelako ardura bat hartzea.

- **Zein garrantzia dauka zure bizitzan militantzia politikoak?**

Gaztetatik aritu naiz politikan eta Elgoibar moduko herri batean alderdi politiko baten kide izatea herri lanean jardutea iruditzen zait, beste batzuk kirola, kultura edo arlo sozialetan aritzen diren moduan. Afiliazioak beti darama lanerako konpromiso bat, bestela ez nintzatekeela alderdikide izango iruditzen zait.

- **Nolakoak izango dira datozen lau urteak?**

Arazo politiko bat dugu herritarren ordezkartzaren inguruan, eta honek ez du lanerako giroa lasaituko. Giro politikoa nahasia dago baina baikorra naiz, herri mailan alderdien artean adostasuna nabarmenduko da herrigintza arloan. Gure Udal talde eta alderdiaren jardura politikoak elkarlanerako baikorra eta herritarrengandik gertu egotea izango ditu helburu nagusi. Herritarren beharrak aztertzen eta akordioa topatzen saiatuko gara, eta honek emaitza onak emango dizkigula uste dugu.

- **Zeri diozu beldur udaletxean sartzerako orduan?**

Beldurrik ez baina errespetua erronka berri honi bai. Ez zait beldurren inguruan denbora galtzea gustatzen eta erronkek erakarri egiten naute, esperientzia berriek, talde lanak, arlo sozialetan aritzeak, ikasteak, eta abar.

- **Alkate izendatzen bazaituzte, zein izango da zure lehenengo lana?**

Lehenik eta behin alderdi guztien programak aztertu eta elkarren arteko adostasunak topatzen ahaleginduko nintzateke. Honez gain, udal teknikari eta batzordeetako arduradunekin herrilanean aritzen diren elkarte, enpresa, ikastetxe eta abar guztiei Udal talde berria aurkeztuko nieke...

- **Zeintzuk dira zure alderdiaren lehentasunak?**

Elgoibar orekatu bat lortzea izango da gure lehentasun nagusia. Herriaren eta herriaren beharrak ondo neurtu eta aztertu arlo desberdinetan erabaki zuzenak hartu ahal izateko. Zaila denez gure asmoen berri elkarrizketa mugatu honen bidez zabaltzea, herritar guztiok gure etxeetan datorren legealdirako EAJ-PNV alderdiaren proposamen edo egitaraua irakurtzera gonbidatu nahi zaituztet, baina aurreraten dizuet besteak beste arlo hauek landuko ditugula: etxebizitza, lur industrialak, mugikortasuna, ongizate zerbitzuak, hezkuntza, lana, merkataritza, auzoak, gaztedia, kirola, kultura, euskara...

- **Zein motako gobernua osatu daiteke Elgoibarko udaletxean?**

EArekin izan dugun harremana ona izan da. Aldi berean, Euskal Herri mailan elkarlanean gabiltza gobernu eginkizunetan. Gure alderdia, lehendakaria buru, EArekin dugun harremana mantentzearen aldekoa da. Nik esango nuke lehenengo altermatiba bera izan beharko litzatekeela.

- **4 urtean behin bozkatuta, nola ikusten duzu herritarren partehartzea?**

Herritarren partehartzea ezinbestekoa da eta horretarako ahalegina egingo dugu, baina partehartze honek metodologia zehatz bat jarraitu beharko du. Partehartzeak, informazio, ideia eta iritzien iturri izan beharko du, gero alderdi politikoei komisiotan adostasunak lortzeko tresna. Herritarrek erabakiak hartzeko aukeratzen gaituzte eta beraien partehartzea sustatu behar dugu ekintza sozialak, kultura arlokoak, kirolak eta bestelakoak indar eta sendotasunez aurrera eramateko.

- **Etxebizitza alorrean, zein izango da zure lehentasun nagusia?**

Argi dago etxebizitza kopurua herriaren beharretara egokitu behar dela. Lehenengo etxebizitza kokatuko nuke behar garrantzitsuenaren moduan. Honek aldi berean beste arazo garrantzitsu bati ematen dio irteera;

gazteen emantzipazioari, hain zuzen ere, ezin baitugu lehenengo etxebizitza 50 urteko hipoteka bihurtu. Etxebizitzaren kontua espekulazio edo inbertsio saretik atera behar dugu, besteak beste honelako formulak erabiliz: gazteen beharretara egokitutako etxeak, prezio adostua, alokairua, laguntza ofiziala... Azkeneko legealdian, Debabarrenean, Elgoibarren eraiki dira eta eraikitzen ari dira laguntza ofizialeko eta alokairurako etxe kopuru gehien, 219 hain zuzen.

«Euskararekiko politika lasterketa luze bat bezala ikusi behar da»

- **Zer egin daiteke etorkinak herritartzeko?**

Garbi dago elkarren beharra dugula eta ahalik eta hoberen integratzen ahaleginduko behar garela. Arlo sozialean, hezkuntzan eta lan munduan zer egingo badago gure aldetik beraien baldintzak hobetu eta gure herrian integratzen laguntzeko. Baina beraien ulertarazi behar diegu gure erakundeak, eta horretarako egokitu edo moldatu beharko direla. Ahalegin handia egin beharko dugu hortaz geure kultura, hizkuntza eta abarera erakartzeko kasu askotan atzerriko etorkin horien seme-alabak bertan jaioko baitira gainera.

- **Gero eta zahar gehiago dago. Zer eskainiko die zure alderdiak?**

Eta gero eta gazte gutxiago. Zahar eta nagusiek atentzioa eskatzen dute. Beraz, elkartasuna eta gutxietsitako pertsonen laguntza, desberdintasunak gutxitu eta ongizate hobea izatera bideratutako ekimenak bultzatuko ditugu Foru Aldundiarekin elkarlanean. Hori dela-eta, gure asmoa gaur egungo baliabideak herriko beharretara egokitzea da: San Lazaro egoitza, Eguneko Zentroa, etxeko laguntza zerbitzua, Jubilatuen Egoitza, tele-asistentzia etab.

- **Merkadilloaren gaiari dagokionez, zein da zure iritzia?**

Gure asmoa kalitatezko merkatal eskain-

tza eta arreta bultzatzea da. Hau dela eta, merkadilloak ere bere tarte izango du. Elgoibarko merkataritzako partaide izanik, elkarlanean, behar duten laguntza emateko prest egongo gara. Gauzak denboraz, ondo aztertuz eta lasaitasunez egiten ahaleginduko gara, bi alderdien arteko adostasunak bilatuz.

- **Utopikoa al da herriko kaleak kotxerik gabe ezagutzea?**

Ez. Eta denen artean lortuko dugu herritarrok eroso ibiltzea herrian.

- **Euskarari dagokionean, zein da zure lehentasun nagusia?**

Euskararekiko politika lasterketa luze bat bezala ikusi behar da eta guzti-guztien oihitza aldaketa eta parte hartzea beharrezkoak izango dira, batez ere euskal hiztunona. Euskara ondorengo belaunaldiei transmititzera (gurasoengandik haurrengana...), erabilera indartzera (merkataritza, lan munduan...) eta euskal kultura aberastera bideratutako plana garatuko dugu. Bestalde, herritar guztiari eskatuko nieke Udalean eta herri mailan euskara izatea beraien lehen hizkuntza eta euskaraz zuzentzea leku guztietan nik neuk ere, orain arte bezala, hala egingo baitut eta baita gure alderdiak ere.

- **Ezker Abertzalea hauteskundeetan ez egoteak zein eragin izango du?**

Ez du ezer onik ekariko. Argi utzi behar da EAJ-PNV taldeak ez duela inolako erantzukizunik Ezker Abertzaleko zinegotziak herritarren ordezkari izan ezinaren inguruan. Aldi berean, gogorazi eta salatu nahi dugu EAJ-PNV eta EAko zinegotziek bukatzeaz dagoen legealdian jasan duten presio kanpaina. Beraientzako gure zorionak eta eskerak. Herritar guztiok ditugu eskubide berberak eta ezin gara besteenei uko eginez politikan aritu. Horregatik eskatzen diegu ezker abertzaleko kideei EAren gaitasunak erabiltzeko eta alderdien legea babesten dutenei bertan behera utzi dezaten, normalizazio politikoaren bidea landu dezagun.

- **Nolakoa imajinatzen duzu Elgoibar 4 urte barru?**

Herriak gune aldakorak dira. Gainditu beharreko erronkak geratu ezin dira, behar berriak sortzen baitira. Gure asmoak bete gero, mugikortasun arinagoa, auzo sustatutakoak, azpiegitura egokiagoak eta adostutako hainbat proiektu (Aita Agirre ingurunea, Zaharren Egoitza berri bat, egokitutako kiroldegia bat...) abian izango ditugu.

Alkatetzarako hautagaiak bildu ditu BARRENeK

Udal Hauteskundeetan baitan, BARREN astekariak mahainguru bat antolatu zuen alderdi guztietako zerrendaburuekin. Musika Eskolako Auditorioan bildu ziren martitzenean eta 100 lagun inguru gerturatu ziren. Alkategai guztiak zeuden gonbidatuta, baina PPkoak ezezkoa eman zion gonbiteari. Bere nahia mahainguruan parte hartzea bazen ere, alderdiak ez zion utzi, ANV mahai berean egongo zelako. Beraz, Alfredo Etxeberria (EAJ), Jon Peli Uriguen (EA), Unai Zulaika (EB-Aralar), Iñaki Odriozola (EAE) eta Ovidio Campello (PSE-EE) izan ziren mahai-kideak. Enrique Bert, BARREneko zuzendaria izan zen moderatzailea. Amaia Lasagabasterrek itzulpen lanak egin zizkion Ovidiori. Gaurkoan herritarrek eginiko galderak eta politikoei emandako erantzunak jaso ditugu.

Kapaz izango al zarete Elgoibarren atezatzen diren botoak errespetatzeko?

Alfredo: Eskubideak errespetatu egin behar dira; denenak. Kanean kartelak jarri dituztenen eskubideak ere bai; norbaitek gainean jarri ditu kartelak. Duela 3 urte izan genuen batzarra Ezker Abertzalearekin eta bidea zabalik laga genuen berriz biltzeko, baina ez da eskaerarik etorri. Erantzuna lapurrak deitzea izan da. Eskubideak denok ditugu eta herri honetan jende asko dago eskubide barik.

Ovidio: Eskubide faltan denok gaude, batzuk eskoltekin bizi behar dugu. Gure aldetik egin dira ahaleginak terrorismoaren gaia gainditzeko, ez du esan nahi Ezker Abertzaleak egin ez duenik. Ezin zaizue behartu terrorismoa kondenatzera, baina horrek gau-

zak asko erraztuko litzuke. Denon partetik jartzen badugu, gai hau konpondu daiteke, ni prest nago pausoak emateko. Ezin gara legearen kontra joan, baina Ezker Abertzaleak Udalean parte hartzeko aukerarik baldin badago, nik ez dut oztoporik jarriko.

Unai: Ez dugu nahi inori berea dena kentzea, baina gurea dena kentzea ere, ez dut nahi. Gai honek gainditu egiten nau, eskubideen gaia alde bietatik dago kakaztuta. Benetan parte hartu nahi baduzue, arau organikoa aldatzeko beharra ikusten dut denon partehartzea bermatzeko.

Jon Peli: EA beti alderdien legearen kontra azaldu da, baina lapurrak deitzeak egoera zaildu egiten du. Udalean ideia guztiak egotea nahi dugu eta nik pertsonalki egingo nuke ahalegina guztion partaidetza ber-

matzeko. Batzordeetan beti izan da posible eta badaude bideak ideia guztiak Udalera eramateko. Gure kartelen gainean "putxerazo" eta horrelakoak jartzeak ez du laguntzen. Hitz egiteko prest beti egongo gera.

Iñaki: Ovidiok esan du erraza izango litzatekeela Ezker Abertzaleak terrorismoa kondenatzea. ANVk badauka terrorismoa kondenatuta bere estatutuetan, baina epaile espainolek beste lege bat asmatu dute gu kanpoan lagatzeko. Alfredok aipatu duen bilera hartan, duela 3 urte egin genuen bilera hartan, beraiek ez zutela lege espainola hautsiko esan ziguten. Legea aldatu daiteke, alkateak aldatu zuen Unai Zulaika udaletxean sartzeko, orain gurekin gauza bera egiteko eskatuko nuke. Legalki posible da.





Merkadilloaren kokalekuarekiko, zein da zuen asmoa?

Alfredo: Askotan leporatu diguzue gaizki jokatu genuela erabakia hartu genuenean. Gaia aztertu egingo dugu, ez dizut esango azoka Plazara ekarriko dugun edo ez, baina aztertu egingo dugu Elgoibarko merkataritzaren barruan merkadilloak bere pisua eta lekua daukalako. Elgoibarko beste merkatuek ere izaten dituzte krisialdiak eta gainditzen dituzte.

Jon Peli: Ni berria naiz, bere garaian ez nengoen udaltxean. Ez dut esango merkadilloa Plazan ondo dagoen edo ez. Nik dakidanez proposamen batzuk egin ziren bere garaian, baina arazoa hor dago, beraz, agian gauzak gaizki egin ziren. Gure partetik gaia aztertzeko prest gaude. Gai honi kutsu elektoralak ematen ari zaio.

Iñaki: Gatazka honetan isunak, galerak eta salaketak daude, besteak beste. Hori guztia ere konpondu behar da. EAJ eta EA hitz egiteko prest bazaudete, ez da gutxi.

Ovidio: Gure ustez merkadilloa herrira itzuli behar da. Orain hitz egiteko prest zaudetela diozue, baina berandu da. Ez duzue herria entzun, saltzaileak ere ez, sekulako dirutza gastatu da Sigman...

Unai: Ez dugu merkadilloaren gaiarekin populismoa egiterik nahi, arazo hau ez dugu guk sortu. Erreferenduma onartzen dugu eta merkadilloa Plazara ekartzea nahi dugu.

San Lazaro egoitza enpresa pribatu batek kudeatzen du, eta langileek baldintza oso txarretan egiten dute lan. Langileen arteko diskriminazioak murrizteko planik?

Alfredo: Ez dut uste San Lazaron edo beste edozein lekutan diskriminazioak daudenik.

Iñaki: Pribatizazioak diskriminazioa bultzatu du, eta ez San Lazaron bakarrik, Kiroldegian ere antzerako zerbait gertatu zen duela urtebete inguru. Eskuineko Udalen joera pribatizazioa da eta horrek desberdintasunak ekartzen ditu.

Unai: Gure nahia ere diskriminazio horiekin amaitzea da.

Ovidio: Zerbitzuak pribatizatzea txarra denaren ideia, ezkertiarrentzat logikoa izan beharko litzateke, baina kalitatezko zerbitzuak emateko enpresa espezializatuak behar dira. Udalak ezin du bere gain langile mordoa hartu, ezin da herriko enpresa handiena izan.

Jon Peli: Kudeaketa txarra bada eta langileen arteko desberdintasunak badaude, horiek ebitatzeko bideak jarriko ditugu.

Zein neurri proposatzen duzue herritarren parte hartzea bermatzeko?

Alfredo: Parte hartzea ez da eztabaida izan behar. Parte hartzea bultzatzeko asmoa daukat.

Unai: Nire gairik politena da parte hartzearena. Udaltxeko batzordeen araudia aldatu egin behar da, partehartzea normalizatu behar da. Politikoak herritarrek aurrera eraman nahi dutena bideratzeko pertsonak izan behar dira.

Jon Peli: Eibiuoren proposamenak programan sartu ditugulako pozten zaretela aipatu duzue. Ideiak onak edo txarrak izan daitezke, ez da garrantzitsua nondik datozen. Guk ez diogu horri begiratuko. Udalean herritarren parte hartzea beharrezkoa da gure lana ondo egiteko.

Iñaki: Gai batzuk oso inportanteak dira: nolako herria izango dugun herria 10 ur-

te barru, arau subsidiarioak, hirigintza, Agenda 21 (jende gutxi agertu eta eztabaidatu beharreko gai asko atera ziren...) gai hauek guztiak bideratu egin behar dira.

Ovidio: Parte hartzea inportantea da. Alderdi minoritarioei Udaleko batzorde guztietan parte hartzea zaila egiten zaigu. Ezinbestekoa da pleno eta batzordeen araudia aldatzea. Datorren legealdia gai honetan desberdina izatea espero dut.

Etxebizitzari zein irtenbide emango diozue jakinda Babes Ofizialeko etxeak ez daudela gazteen neurria eginda?

Alfredo: Esan dut lehen ere babestutako etxeak ez direla gazte guztientzat egokiak. Eskatuko nizuke EAJren Foru Aldundirako programa irakurtzea.

Unai: BOE etxeak badakigu ez daudela denon eskura, baina inoiz baino BOEko etxe gehiago eraiki da Euskal Herrian azken urteotan eta gazte askori lagundu die. Besteentzako alternatibak denon artean topatu beharko ditugu.

Prest al zaudete plenoetan herriko taldeei hitza eman eta mozioak aurkezteko aukera eskaintzeko?

Alfredo: Ez naiz horren aldekoa. Batzordeetan hartzen dira erabakiak. Parte hartzea erabili behar da iritzia emateko, baina proiektua lantzen ari denean, ez bukeran. Plenoak azken fasea dira.

Unai: Nire ustez plenoetan parte hartzeko aukera izan beharko lukete herritar guztiek, baina Alfredok esan bezala, proiektuak egiten direnean hartu behar da parte. Horretarako inportantea da Udalean gehiengo absolutorik ez egotea.

ELKARRIZKETA DIGITALAK

Hautagaiekin hitz egiteko beste modu bat

Hauteskundeetako kanpainaren baitan, BARREN astekariak eta elgoibarren.net webguneak ahalegin berezia egin dute ahalik eta informazio sakonena eta zabalena emateko.



Elkarrizketa digitalak elgoibarren.net-ek gauzatutako ekimena izan da. Alkatetzarako hautagaiekin hitz egiteko beste modu bat eskaini diegu atariko erabiltzaileei. Lehenengo bostak eginda dauge dagoeneko: Unai Zulaikarekin hasi ginen. Jon Peli Uriguen izan zen bigarrena, ondoren, Francisco Javier Nuñez, Ovidio Campello eta Iñaki Odriozola izan genituen. Elkarrizketa digitalen atala gaur amaituko dugu Alfredo Etxeberriarekin. EAJko hautagaia 18:00etatik aurrera izan-

go da webgunean. Zerrendaburu guztiak izan dira gure artean eta hori guretzat oso positiboa izan da, bi arrazoiengatik: batetik, gure herriak duen aniztasuna gauzatzeko gai izan garelako eta bestetik, elgoibartarren partehartzea bultzatu dugulako.

Elkarrizketa digital hauek ezinezkoak liriteke herritarren partehartzerik gabe. Galderak herritarrenak ziren eta onartu behar dugu hasieran ez genekiela nolako erantzuna jasoko genuen baina orain, sei-garrena bakarrik falta denean, eskertu eta

txalotu egin behar dugu zuen inplikazioa.

Hautagai gehienentzat ere, modu honetako lehenbiziako ekintza izan da eta, arazoak arazo (bereziki euskararen eza-gutza nahikorik ez dutenentzat) jarrera eta inplikazioa txalagarria izan da.

Pausu txiki bat eman dugu eta jasotako esperientzia etorkizunean baliagarria izango delakoan gaude. Gure erabiltzaileekin, eta oro har, elgoibartar guztiekin, harremana eta komunikazioa sendotzea dugu helburu.



Amaitu dira Euskara Errefortzuak

Euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten haurrei laguntzea da Elgoibarko Izarrak antolatzen dituen Euskara Errefortzuen helburua. Teknikari baten lagun-

tzaz, ahozkitasuna lantzen dute batez ere. Aurtengo ikasturtean 52 ikasle aritu dira. Egitasmo hau urrian hasiko da berriro. Informazio gehiago 943741626 telefonoa.



[IKAS KONTUAK]

Gurasoen Eguna Pilar Ikastetxean

Pilar Ikastetxean Gurasoen Eguna ospatuko dute bihar, maiatzak 26. Goizean tailerrak, puzgarriak, guraso eta ikasleen arteko futbito partidua eta tarta txapelketa izango dira. Bazkal ostean, bingoa, mus txapelketa, haur jolasak eta sari banaketak.

Ikastolako haurren jaialdia

Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleen jaialdia izango da gaur, iluntzeko 18:30ean Ikastolako frontoian. Txikienek euren abileziak erakutsiko dizkigute.

Elgoibarko ikastetxeek Ekintzailearen Eguna ospatu zuten

Elgoibar Ikastolan eta BH Institutuan Ekintzailearen Eguna ospatu zuten. "Zure ideia sor ezazu" lehiaketako sariak banatu zituzten Institutuan. Lehiaketaren helburua enpresa ideia berritzaileena eta bidegarriena saritzea izan zen. Elgoibarko Ikastolan, berriz, Foru Aldundiko bi lagunek hitzaldi bat eskaini zuten: Joaquin Villa eta Jose Ramon Guriki ikasleen artean ekintzailetasuna suspertzen saiatu ziren.




Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

URKIDI
AHOLKULARITZA



Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12



MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRITZATZEAK - PINTAKETA

MAHASTI

Jose Angel Zabala
URDATEGIA eta ARDANDEGIA



Merkatu Plaza, 30-33-34 • Tel.: 615 76 03 72

BERTSOLARITZA

“Bertsotranpak” saioa datorren barixakuan Herriko Antzokian



Bertsotranpak ekitaldiarekin datozki-gu oraingo honetan, Ander Lipus, Andoni Egaña, Xabier Paya, Fredi Paia eta Aitor Agirianok osaturiko boskotea. Bertsozale Elkartearen Lanku Zerbitzuak taularatzen duen ikuskizun honek, hiru arte diziplina uztartzen ditu: antzerkia, bertsoak eta musika. Bere nahia, jatorrizko antzerkiaren izpiritua berreskuratzea da, horretarako bat-bateko bertso-gintzaren sorkuntza ahalmena erabiliz eta aldi berean, musika zein hitzez egoki atonduz.

Emanaldi honetan, musikaren ardura Aitor Agiriano, Antzerkiola izeneko konpai-

niaren musika zuzendariak, hartzen du bere gain. Ander Lipus, berriz, Antzerkiola Imaginarioa taldearen sortzaileetako bat da eta konpainia honetako zuzendari artistikoa 1998. urteaz geroztik. Horretaz gain, aktorea eta bertsolari ohia izandakoa. Bertsotranpak ikuskizuna, Euskal jaien mendeurrena ospatzeko antolatutako egitarauaren baitako beste ekitaldietako bat dugu. Saioa ekainaren 1ean, izango da Herriko Antzokian eta iluntzeko 22:00etatik aurrera. Sarrerak (5 euroren truke) aurrez salgai egongo dira Kultur Etxean, goizez Euskara Sailean eta arratsaldean, Gazte Informazio gunean.

Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertua domekan

Domeka honetan, maiatzaren 27an, Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian, eguerdiko 12:30etik aurrera.

Jose Antonio Osoro, bandako zuzendariaren batutapean eskainiko den kontzertuaren egitaraua honakoa da:

- “El niño de Jerez” pasodoblea (C. Zabala)
- “Peer Gynt”
4 denboraz eraturiko suite-a (E. Grieg)
- “Grease” (W. Hautvast)
- “Una noche en Calatayud” (P. Luna)
- “John Williams in concert” (P. Lavender).

Aitor Asenjo 4. postuan sailkatu zen Erreterriako Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako finalean

Pasa den zapatuan, Erreterrian jokatutako Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako finalean, Aitor Asenjo dantzari elgoibartarrak 4. postua eskuratu zuen. Imanol Iturrino elgoibartarrak berriz, 13. postua erdietsi zuen. Gogorazi final honetan, ligaxkan puntuaziorik onenak lortu dituzten 15 mutilek parte hartu dutela. Honenbestez, txalotzekoa da mutilen lana ere. Era berean, irakasle lanetan ibili den Jon Lizarralderen lana ere txalotzekoa da, ikasle guztiekin egindako lana eta herri mailan zein Euskal Herri mailan erakutsitako maila onarengaitik. Zorionak guztioi!



I. URTEURRENA

2006ko maiatzaren 26an, 63 urte zituela hil zen **M^a Carmen Azpiazu Zubizarretaren** oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 26, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik..



ELGOIBARKO MENDI ITZULIA

lazko partaidetza errekorari bere horretan eutsi zaio aurten



Lazko partaidetza errekorra bere horretan mantendu zen pasa den domekako Mendi Itzulian. Morkaikoko zuzendaritzatik jakinarazi digutenez, urte honetan, 253 lagunek eman zuten izena, iaz baino persona batek gehiago. Are gehiago, iragan den domekan egin zuen eguraldi kaskarra ikusita, gutxi izan ziren aterra gabe geratu zirenak. Andoitz Agirregomezkorta elkarteko zuzendariaren hitzetan, "eguraldiaren ondorioz ez genuen, inzidente larririk izan. Hori bai, ekaitzak jendia busti-bustiita laga zaban eta Morkaikoko inguruan zijuazen partaide batzuk San Migelko hornitze puntura itzuli ziran, gertu ziftuen tximistetaz babestu asmoz. Azke-

nian ordu laurdeneko ekaitza eduki gennun, gainontzian, ez genduan eguraldi txarrik izan eta Karakate-Irukutzeta bidian eguzkixa ere eduki zaben parte hartzaileek". Horretaz gain, parte hartzaile eta antolatzaileek bai mendiri biran, bai ondorengo bazkarian bizi izan zuten giroa bikaina izan zela gaineratu digu Andoitzek. Beraz, Morkaikotik egiten duten balorazioa oso positiboa da: "Beti egongo dira hobetu biharreko gauzak, baina gauzak ondo urten ziran sentsaziuakin geldittu ginan. Bai herritarrek eta bai kanpotarrak datorren urtian errepikatzeo asmuakin geldittu dira eta hori da seinalerik onena".



SASKIBALOIA

Elgoibarko saskibaloia taldea Kopako txapeldun

Elgoibarko senior mutilen mailako saskibaloia taldeak Kopako txapeldun titulua eskuratu zuen, pasa den zapatuan Eibarko Datac taldearen aurkako finaleko partida irabazi ondoren.

Norgehiagokaren hasieratik, elgoibartarrak nagusi izan ziren eta neurketaren amaieran, 70-45eko emaitzari esker, txapeldun geratu ziren.

Honakoa da saskibaloia talde elgoibartarrak bere kirol ibilbidean lortzen duen aurreneko titulua. Horrexegatik, jokalarik, eta jarraitzaileak oso gustura daude. Zapatuan zaletu ugari gerturatu ziren Olaizaga kiroldegira partida ikusi eta jokalaririk animatzeko. Giro bikaina bizi izan zuten.

Hona hemen, jokalarien izen abizenak: (Ezkerretik eskuinera eta goiko ilaran): Aitor Rementeria, Alex Aranzabal, Alberto



manzanos, Jon Perez Cortes, Roberto Ruiz eta Ivan Alonso. (Ezkerretik eskuinera eta beheko ilaran): Ramses Lahoz, Carlos La-

hoz, Asier Murua, Aimar Gurrutxaga eta Jaime Martinez. Argazkian Manex Bereziartua falta da.

Morkaikok antolatutako Finalista Eguna ekainaren 10ean izango da

Datorren ekainaren 10ean izango da aurtengo Finalista Eguna San Pedron. Antolatzaileek jakinarazi digutenez, goizeko 10:30ean aterako dira haurrekin batera, Plaza Handitik San Pedrorra joateko. Gora iristean hamarretakoa egongo da eta 12.30ean, dominak banatuko dira.

Ondoren, San Pedron bazkaria egingo dute. Bazkarirako izena eman nahi duenak, ekainaren 4a baino lehen, Morkaikoren lokalera jo dezakete (astelehen eta ostegunetan, 19:00etatik 20:30era). Bazkariaren prezioa, pertsonako 20 eurokoa izango da.

Haurrek nahi izan ezker, ogitar-teko bat eraman dezakete eta Atxutxiamaika Aisialdi Taldekoekin bazkaldu. Horretarako Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Urbitarten duen lokalean edo Morkaikoren lokalean, ohiko ordutegian, aurrez izena ematea eskatzen da.

Olalasa infantil neska Espainiako txapelketako lehen fasean bigarrenak geratu dira

Olalasa infantil mailako nesken eskubaloia taldeak, Veran (Almeria) hiru partida jokatu zituzten, iragan den ostiraletik igandera bitartean. Ostiralean, Carboneras izeneko talde andaluziarraren kontra galdu zuten, 31-23 ko emaitza erdietsiz. Emaitza ona, txapelketa honetako maila goreneko eta prestaketarik hobereneko taldearen aurka jokatu zutela aintzat hartzen badugu. Horren erakusgarri, andaluziarrak txapelketa honetako txapeldun geratu dira.

Zapatuko neurketan, bestalde, talde elgoibartarrak Aceuchal talde extremeñarra mendean hartu zuen, markagailuan 21-10eko emaitza ezarriz.

Azken partidaren berriz, La Garriga talde kataluinarrari aurrea hartu zieten elgoibartarrek 13-12ko emaitzarekin. Orain, Espainiako txapelketatik kanpo geratu izanik, Euskadiko Txapelketa jokatzeko gertatzen zaio, egungo Gipuzkoako txapeldunak baitira.



HERRI KIROLAK

Herri kirolen erakustaldia egingo da ekainaren 2an Foruen Plazan

Euskal Jaien mendeurreneko egitarauaren baitan, herri kirolek ere, beren tarteak izango dute, datorren zapatuan, ekainaren 2an, Elgoibarren.

Herri kirolen erakustaldia eta norgehiagoka Foruen Plazan egingo da iluntzeko 19:00etatik aurrera. Udal Kirol Patronatutik bideratutako kirol ekitaldi honetan, harrijastzaileak eta aizkolariak lanean ikusteko aukera izango dugu, besteak beste. Aizkolarien artean, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" eibartarra, Jose Inazio Flores arbizuarra, Maika Ariztegi iturenarra (Euskadiko txapeldua) eta Maider Manzisidor andoaindarrak (Euskadiko txapelkun ordea) arituko dira aizkoran. Iparraldeko jokoei dagokionez, lasto jasotze eta ingude jasotze eginkizunetan Ana Berasategi ibargurendarrak jardungo du. Harri desbedinekin harri jasotze



erakustaldia, berriz, Joseba Ostolaza zetuarraren kontu joango da. Erakustaldiez gain, norgehiagoka ere izango da, aizkoran, harrijasotzen, txinga eramaten eta korrikan. Bukatzeko, motozerrarekin irudi bat egingo du Bihurrik.

Azkoitiak Elgoibar kanporatu du Herriarteko Pilota Txapelketan



Elgoibartarrek duintasunez esan diote agur Herriarteko Pilota txapelketari. Azkoitiar pilotariak pasa den barixakuan Azkoitiako Gurea frontoian jokaturiko partidaren 2 eta 1 nagusitu ziren final-zortzirenetako kanporaketako itzulerako partidetan. Senior bikoteak bakarrik lortu zuen garaipena. Bi herriek hiruna partida irabazi dituzte elkarren aurka jokaturiko kanporaketan, baina egindako eta jasotako tanto kopuruari kasu eginez gero, 23 tanto gehiago egin dituzte Atano III.aren herrikideek.

Bihar erabakiko da Gipuzkoako 38. Hiru Txirlo Bolo txapelketa

Gipuzkoako XXXVIII. Hiru Txirlo Bolo Txapelketako 8. jardunaldia jokatu zen pasa den zapatuan Soroluzeko Txurruka bolatokia. Oraingo honetan eta azken jardunaldiaren faltan, Imanol Osoro san migeldarra bigarren postuan sailkatu zen, 7 txirlo jaurti ondoren. Halaber, Xabier Loiolak, 4. postua eskuratu zuen. Jardunaldi honetan ere, eibartar bat jabetu zen sailka-

peneko lehen postuaz, Asola Berri taldeko Bittor Astigarraga bolo jokalaria, hain zuen ere. Bihar Eibarko Asola Berri bolatokia erabakiko da (12:00etan) txapelketa eta ondoren bazkaria izango da Azitain jatetxean. Segidan omenaldia egingo zaie Juan Luis Rodriguez (Txatua) eta Luis Javier Oregi (Plaentxi) bolariei. Sari banaketa ere burutuko da maila guztietan.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

San Ignacio 1 - Haundi 0
Elgoibar 2 - Vasconia 1 (jub.)
Elgoibar 11 - Behobia 0 (kad.)
Real Union 6 - Elgoibar 0 (o. inf.)
Urola 0 - Elgoibar 2 (inf. txiki)
Urola 8 - Elgoibar 1 (neskak)
Urko 8 - Elgoibar 1 (aleb.)

ARETO FUTBOLA

Eskoriatza 0 - Kenci 0 (euska liga)

ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Azkoitia (Gorosabel/Zendoia) 22 - Elgoibar (Plazaola/Arrillaga) 0 (kad.)
Azkoitia (Epelde/Epelde) 22 - Elgoibar (Lizarralde/Arrizabalaga) 4 (jub.)
Azkoitia (Andueza/Orbegozo) 11 - Elgoibar (Lazarobaster/Loiola) 22 (nagus.)

Debarroko Txapelketa

Lagunak (Atxotegi/Loiola) 21 - Ozkarbi (Azagirre/Irureta) 22 (nagus.)

Debarroko Txapelketa

Arresti 18 - Gurrutxaga 5 (aleb.)
Conde 18 - Larrañaga 7 (aleb.)
Salegi 18 - Zubiaurre 10 (aleb.)
Santamaria 18 - Agirrebeña 6 (aleb.)
E. Arrizabalaga 13 - B. Arrizabalaga 18 (kad.)
Guenetxea 17 - Agirrebeña 18 (kad.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapata, 26

10:30 Elgoibar - Lagun Onak (o. inf.)
12:00 Elgoibar - Arizmendi (Nesk.)
17:00 Haundi - UPV

Domekia, 27

10:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Aleb.)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Zapata, 26

17:00 Relojes Mondaine - MCM

(Gipuzkoako Jubenilen Kopa finaleko partida)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Etxe eguzkitsua salgai. 3 logela, egongela, jangela, sukaldia, komuna. Berritua, altzariekin. Bi igogailu eta ganbara. ☎ **680707639**

▶ Etxea salgai San Roken. Berria bezalakoa. Prezio negoziagarria. Egongela, 3 logela, 2 komun, sukaldia eta despentsa. Garajea eta ganbara. ☎ **646405567**

▶ Etxea salgai Sigman. Bizitzera sartzeko. Bista onak. Balkoia, sukaldia, egongela, komuna, 3 logela. ☎ **676623114**

▶ Etxebizitza salgai Altzolan. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta lursail txiki bat kanpoaldean. Bizitzeko moduan. Prezio interesgarria. ☎ **619812448/676136199**

▶ Duplex-a salgai Artexen. 4 logela, sukaldia, egongela, bainugela. Eguzkitsua. 195.000 euro. ☎ **696266982**

ALOKAIRUA

▶ Pisua konpartituko nuke. ☎ **687323613 (Asif)**

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. ☎ **627831529**

▶ 19 urteko mutil frantsesak familia euskaldun batean ostaturia ordainduko luke. Ekainean. Logela eta gosari-afariak. ☎ **628087042 (Edume)**

▶ Logelak ditut alokatzeko. ☎ **943744329**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Marradun garajea alokairuan herri erdi-erdian, Santa Ana 2an. ☎ **943743427**

▶ Garaje itxia alokatzen da Trenbide kalean. ☎ **943742009/660795301**

[AUTOAK]

▶ Peugeot 306 familiarra salgai. 1.900 turbo diesel. 98koa. 170.000km. Egoera onean, beti garajejan. ☎ **610074096/943033613**

[BESTELAKOAK]

▶ 2. eskuko ume kotxe kapota, aulkiak eta sakuak salgai. (Bebé confort) ☎ **629132713**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Mutila lanerako prest: txofer, sukaldari laguntzaile, kamarero... ☎ **669768779**

• Neska gaeuz lan egiteko prest. ☎ **638221948**

• Neska orduka nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **638221948**

• Emakumea goizez lan egiteko prest. taberman, sukaldari, garbitzaile, zaintzaile... ☎ **654604798**

• Emakumea taberman lan egiteko prest, sukaldari, garbitzaile... ☎ **690701118**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest, irailatik abendura. Nire erreferentziak Elgoibarko familiak ditu. (Molly) ☎ **943741569/627941227**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Sukaldari laguntzaile... esperientziaduna. ☎ **638527915/943530132**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest, irailatik abendura. Nire erreferentziak Elgoibarko familiak ditu. (Molly) ☎ **943741569/627941227**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Kamareroa (esperientzia) edo garbitzaile moduan. ☎ **666032715**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Goizez bakarrik. ☎ **943740367/639520378**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Kamareroa (esperientzia) edo garbitzaile moduan. ☎ **666771701 (Edileuza)**

• Emakumea lanerako prest. ☎ **671742142**

• Neska gaztea haurrak edo nagusiak zaintzeko, kamarero, sukaldari laguntzaile... ☎ **626394831**

• Alzheimerria duen pertsona zaintzeko emakume euskalduna prest. ☎ **943742330/660511781**

• Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **626767586/943531903**

• Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Egun erdiz. ☎ **680623606 (Olivia)**

• Neska lanerako prest. ☎ **663569263/676853028**

• Neska ingelesa au-pair bezala umeak zaintzeko prest, irailatik abendura. Nire erreferentziak Elgoibarko familiak ditu. (Molly) ☎ **943741569/627941227**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Sukaldari laguntzaile... esperientziaduna. ☎ **638527915/943530132**

• Klase partikularrak ematen ditut. LH, DBH, zirkloak eta modulorak. Zientzia arloan. ☎ **653717972**

• Pertsona kamareroa edo sukaldari laguntzaile lanerako prest. ☎ **649368137**

• Klase partikularrak ematen ditut. LH eta DBH. ☎ **943531054**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanerako prest. ☎ **607780679 (Reina)**

• Neska umeak, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako prest. ☎ **697431326**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628529252**

• Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ **607824892**

• Administrazio laguntzaile behar da lanaldi erdirako Elgoibarren. ☎ **943748566**

• Tabernarako kamareroa behar da. Astegunetan, eta astebururak txandaka. ☎ **943742897**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943121262**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Ibai** zure lehenengo urtebetetzean. Amatxo, aitatzo eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Nahia** gur urte bat egin duzulako. Familiakoen eta bereziki, ahizpa Iratiren partez.



▶ Zorionak **Ander** Gurasoen eta arreba Arianaren partez.



▶ Zorionak **potxola** eta muxu bat denon partez, astelehenean 8 urte egingo dituzulako.



▶ Zorionak **Amaia de Castro** zure egunean! Lehengusuen partez.



▶ Zorionak **Jon** zure 6. urtebetetzean. Amatxo eta aitatzoren partez.



▶ Zorionak **Aritz** astelehenean 2 urte egingo dituzulako. Aita, ama eta Mikelen partez.



▶ Zorionak **Markos** hilaren 20an 7 urte egin zenituelako. Asier, Iria eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Elsa** zure 8. urtebetetzean. Muxu potloak etxekoan partez.



▶ Gure etxeko piratak domekan 7 urte! Zorionak eta patxo handi bat **Oier** Unai eta Leireren partez.



▶ Zorionak **Tamara** Atzo jaio zinela dirudi eta iada, 11 urte! muxu bat. Guraso eta Aidan partez.



▶ Zorionak **Sara** zure 10. urtebetetzean. Etxekoan partez.



▶ Maizteko gure lora bixen urtebetetziak pasau berri dira, eta lbonek eta aittak muxu bana bialduz zoriundu nahi zaituegu. Pa!



▶ Zorionak **Francisco eta Petral** Familiakoan eta bereziki, seme-alaben partez.



▶ Zorionak **Ion eta Itziar** Zoriontsuak izan zaitezela. Familiakoan eta koadrilakoan partez.



▶ Zorionak **Gorka eta Lorea** atzo 8 urte egin zenituztelako. Etxekoan partez.



▶ Zorionak **Maitane eta Aitor**! Heldu da denok esperogenuen egun handia. Oso ondo pasa! Maitaneren koadrilakoak.



▶ Zorionak 22-05-99!



▶ Zorionak **hirukote** zuen urtebetetzean eta batez ere, Ioni bere jaunartzeagatik. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Jokin** lehenengo jaunartzea egin duzulako eta bihar zure eguna delako. Guraso eta bereziki, Beñaten partez.



▶ Zorionak **Haizea**! Maiztak 22an 8 urte bete zenituelako. Familiaren partez eta bereziki Markel-en partez.

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



29 igandea DOÑA MERCEDES



[FARMAZIAK]

- 25 Bidasolo
- 26 Etxeberria (Santa Ana)
- 27 Etxeberria (Santa Ana)
- 28 Fernandez
- 29 Zabaleta
- 30 Yudego
- 31 Etxeberria (Errosario)
- 1 Ibañez

GUARDIA 24 ORDUZ

Bidasolo
Etxeberria (Santa Ana)
Etxeberria (Santa Ana)
Fernandez
Zabaleta
Yudego
Etxeberria (Errosario)
Ibañez

KANPOKO FARMAZIAK

IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ

Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA

Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.



**CORDON
VILARCHAO**

DEKORAZIOA

Karpo eta barniko estaliturak
Zaluen kolokaturak
Lakatuak: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra



San Roke, 7 beheak
Pol. Glase - Glasepe kalea, 18 - 25 eta 26 modaleak
Tel. 943 740 570



karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurak S.L.


Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



LANBROG



Pintxoetan aukera zabala

P. Mugeruza, 7 Tel: 943 74 16 76

Lanbrog



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Mugeruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

[25 BARIXAKUA]

18:30 IKASTOLAKO HAUR HEZKUNTZAKO JAIALDIA
Ikastolako frontoian

19:00 PILAR IKASTETXEKO DBH-KO IKASLEEN AGURRA
Pilar Ikastetxean

22:00 BIDEO FORUM-A
Filmea: "A Good Woman"
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Hizlaria: Eskame Larrinaga
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

22:15 "THE PUB IBILTARIA"
Oskorri taldearekin
Herriko Antzokian
Euskal Jaien 100. urteurrenaren ospakizunen baitan

[26 ZAPATUA]

11:00 GURASOEN EGUNA
Pilar Ikastetxean

22:30 KONTZERTUAK GAZTETXEAN
Taldeak: "A Coruña Punk Rock Konfliktu" eta "Ekinozio"
Elgoibarko Gaztetxean

[27 DOMEKIA]

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
Herriko Antzokian
Egitaraua: "El niño de Jerez" (C. Zabala); "Peer Gynt" (E. Grieg); "Grease" (W. Hautvast); "Una noche en Calatayud" (P. Luna); "Hohn Williams in concert" (P. Lavender)
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro

[1 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA
2 urtetik 6ra bitarteko umeentzat.
Plaza Handian.

22:00 BERTSO TRANPAK
Bertsoak, musika eta antzerkia.
Herriko Antzokian

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«La vida de los otros»

26, zapatua: 19:30-22:15
27, domekia: 19:30-22:15
28, astelehena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Piratas del Caribe III»

25, barixakua: 18:30-22:00
26, zapatua: Ordua zehazteko
27, domekia: Ordua zehazteko
28, astelehena: 18:30-22:00
29, martitzena: 18:30-22:00
30, eguaztena: 18:30-22:00

BARRENEK ez du gerta litezkeen emandien aldaketen erantzukizunik.

«La vida de los otros»



Zuzendaria: Florian Henckel von Donnersmarck
Antzezleak: Martina Gedeck, Ulrich Mühe, Sebastian Koch.

Gerd Wiesler kapitaina Stasi-ko (Alemaniar Errepublikak Demokratikoki ohiaren ahalguztidun polizia sekretua) ofiziala da, espioia, alegia, eta bere lanean ezin hobea gainera. 1984. urtean aginduko dioten lantxo batek hankaz gora jarriko du ordurarteko bere bizimodua, ordea. Georg Dreyman idazle prestigiosuak eta Christina-Maria Sieland aktore ezagunak osatutako bikotea espatzeko eskatzen diotenean lana bizitza pertsonalarekin nahasten hasiko zaio.

Atzera hegira



1947. urteko erretratu zahar hau **Javier Zengotitak** laga digu. Erretratuan ikusten ditugun gazte hauek, Arrasate aldera egin zuten irteera egun honetan. Pedro Ezkurra kamioilariak antolatu zuen txangoa. Bere Chevrolet kamioian aulki luzeak jarri eta denak Debagoiena aldera abiatu ziren. Udalaitz mendiaren azpian dagoen Galarragako kobazuloa bisitatu zuten lehenengo. Kobazulo ederra zela esan digute, barruko aldean 20 metroko altura zeukan gutxienez, eta bertako estalaktitek argia egiten zuten. Ekologistek kobazuloa ixteko eskatu zuten eta gaur egun oraindik itxita dago. Mutil gazte hauek kobazulotik atera ondoren, Kanpazar gainean zegoen Sara tabernara joan ziren txikito bat hartzera eta hantxe atera zuten argazki hau. Gogora ditzagun zein diren argazkian agertzen diren mutilak. Ezkerretik eskumara: **Alfredo Arrillaga (t), Anjel Azkue (t), Felix Agirrebeña, Pedro Ezkurra, Javier Zengotita eta Patxi Igartua.**



ESKERTZA

2007ko maiatzaren 18an hil zen
Jose Mari Ansola Arrillagaren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

2006ko maiatzaren 25ean, 56 urte zituela hil zen
Pedro Balzola Loyolaren
oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, hilak 26, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik..



Bertsotranpak

Ekainak 1, OSTIRALA
22:00etan
Herriko Antzokian



Egoitza Urtia



Foru Adarria



Eusko Jaurlarria



Sarrerak aurrez salduko dira
Kultur Etxean
Euskara Sailean goizez eta Gazte
Informazio Bulegoan arratsaldez
Prezioa: 5 €

Ander Lipus
Andoni Egana
Xabier Paya
Fredri Paia
Aitor Agiriano



HEZIKETA ZIKLO INDUSTRIALAK

BERRIKUNTZAK 2007/08 ikasturtean:

Goi-Mailako Ziklo ELEANITZAK:
euskara/gaztelera/inglesa

PROIEKTUETAN oinarritutako
irakaskuntza

15 urteko esperientzia

Erdi-Maila A/D ereduak

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa

Goi-Maila A/D ereduak

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantenimendua



... Informa zaitez!

Ate irekiak:

Maiatzak 30, 19:00etan eta ekainak 2, 11:30ean

IMH, Azkue Auzoa,1 - ELGOIBAR - Gipuzkoa - Tel.: 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es



Elgoibar egitea

etorkizuna eraikitzen
beste modu batean

www.euskalherriaegitea.org

*elgoibartarrekin
elgoibartarrentzat*



**eusko
alkartasuna**
euskal sozialdemokrazia

